

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Alustiza Berasategi

*Zegama,
Gipuzkoa
(1915-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Zegamako Arakama Enea (Akamane) baserrian jaioa 1915ean. Ama bertakoa eta aita Egurtzakoa zituen, biak zegamarrak eta hamar senideetan zortzigarrena da. Eskolan, auzoan bertan (San Pedro) eta herriko eskolan ibili zen. 9 urte zituenerako, artzaintza munduari lotu zitzaion eta Aizkorri barreneko bordan egoten zen. Arkume garaian zaldigurdian eramaten zituen Ordiziako azokara saltzera. Auzoko familia batek zuen errota, eta artoa hartu eta alea eramaten zuen errotara, langintza horretan aritu zen eta askotan egiten zuen lo errotan bertan. Gerra garaian, soldadu ibili zen, baita ferrobiario baten semeak animatuta trafikoko polizi azterketa gainditu eta Bartzelona eta Donostian lan horretan aritu ere. Gerratean, bonba batek ondoan eztanda egin eta belarri bateko entzumena galdu zuen. Gerra ondorenean, Patrizio Etxeberrian, Legorretako harrobian eta kaminero lanetan aritu zen, besteak beste.

Zintak

ZEG-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-09-16
- **Iraupena:** 88 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com